

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Manuel Urrestarazu Iradi

*Donostia,
Gipuzkoa
(1928-2015)*

Aurkibidea



Biografia



Mamistegin jaioa, Donostiako Aiete auzoan, baserritik bizi izan da beti. Ganadua izugarri gustatu izan zaio beti; baratzea ez hainbeste. Aita gazte alargundu zen, eta berriro ezkondu zen. Ahal izan zuenean joan zen eskolara, beti bazegoen zeregina eta. Bederatzi esne-behi zituzten, eta esnea partitzen zuten; baita barazkiak saldu ere, San Martin plazan. Emaztea joaten zen, zaldi-karroan; ondoko baserrira ezkondu zen Manuel, Gure Pakeara, eta lau seme-alaba izan zituzten. Bi baserrion arrastorik ez da orain, etxeak egiteko bota zituzten eta. Hirubidera joaten ziren dantzara, eta Hernanira feriara. Sagardoa ere egiten zuten etxean. Antxoa ekartzen zuten kaitik, baratzean zabaltzeko.

Zintak

DON-018

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-09-23
- **Iraupena:** 71 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Mamistegin jaioa

- **Erref:** DON-018/002
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:00:29. **Bukatu:** 00:02:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Mamistegi baserrian jaioa. Bi bizitza ziren. Jatetxea dago izen horrekin, baina etxea desagertuta dago. Behean sukaldea zuten eta goian gelak. Zazpi senide

ziren, bi ezkontzatakoak: hiru urte zituela ama hil zitzaion (nola azaltzen du), eta bi arreba txikiak osaba-izebek hartu zituzten; gero beste lau senide jaio ziren.

2. Aiete nolakoa zem

- **Erref:** DON-018/004
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:02:36. **Bukatu:** 00:04:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aieten dena baserria zen, zaldia eta karroa. 60 baserri zeuden. Bederatzi urterako lanean, baserrian. Eskolara gutxi bidaltzen zituzten. Don Cecilio apaizarekin ibili zen; andoaindarra, gerra garaian Bizkaira bidali zuten.

3. Eskola eta umetako jolasak

- **Erref:** DON-018/006
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:06:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

Laburpena:

Sei urterekin hasi zen eskolan, eta bederatzirekin bukatu. Ikasi zuena. Umetako jolasak: pilota, txibak, ostikoka, kaniketan...

4. Mamistegiko lurrak

- **Erref:** DON-018/007
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:06:48. **Bukatu:** 00:08:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Mamistegiren zein lursailak zituen azaltzen du. Maizterrak ziren. Sagar arbolak zituzten, eta sagardoa egiten zuten. Tolarea zuten, eta auzokoak ere hara eramaten zuten sagarra. Auzolanik ez zen egiten, baina eguraldi txarra zetorrenean behar zuenari laguntzera joaten ziren, belarretako garaian.

5. Belar metak egiten

- **Erref:** DON-018/008
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:08:14. **Bukatu:** 00:10:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Belar metak nola egiten zituzten. Altzarekin egiten zuten egitura. Ganadua zuten etxean.

6. Baratza eta ganadua

- **Erref:** DON-018/009
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:10:05. **Bukatu:** 00:14:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Baratzean barazki asko zuten, denetik. Nahiago zuen ganadua baratzeke lanak baino. Esne behiak zituzten, bederatzi. El Leon garagardo lantegitik garagarra ekartzen zuten ganaduarentzat. Aitak 4.000 pezetatan erosi zuen behi bat, Hernanin. Idi bat zuten, eta behi handienarekin jartzen zuten uztarrían. Bi gurdi zituzten, bata simaurretarako eta bestea zaldi karroa.

7. San Martin azokara saltzera

- **Erref:** DON-018/010
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:14:00. **Bukatu:** 00:15:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera

Laburpena:

San Martin plazar joaten ziren zaldi-karroarekin. Bretxan ere asko izaten ziren. Emaztea joaten zen. Lehen egunero joaten ziren, baita igandetan ere. Esnea partitzea. Emazteari autoa lapurtu zioten behin.

8. Gerra eta gerraostea

- **Erref:** DON-018/011
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:15:38. **Bukatu:** 00:17:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra hasi zenean, etxetik ikusi zuen Irun nola txikitu zuten. Irundarrak ziren etxeko jabeak, eta laguntzera joan ziren. Don Salbador Olazabal. Gose garaia zen, eta zapiarekin joaten zen antxoa bila portura. Beraiek baratzean botatzen zuten antxoa, eta baziren hura batzen ibiltzen zirenak ere.

9. Errazionamenduko tabakoa

- **Erref:** DON-018/012
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:17:37. **Bukatu:** 00:18:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Errazionamenduko tabakoa. Aita erretzailea zen eta Aieteko apaiza ere bai.

10. Txerri-janarekin hazitako txerriak

- **Erref:** DON-018/013
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:18:27. **Bukatu:** 00:19:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Baserritik bizi ziren. Lau-bost txerri izaten zituzten, txerri-janarekin haziak. Aldamar kaletik ekartzen zuten (Casa Nicolasa jatetxetik).

11. Aieten, gehienak baserrietatik bizi ziren

- **Erref:** DON-018/014
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:19:14. **Bukatu:** 00:21:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Inguruko lantegiak, Antiguan. Lizarriturri txokolate lantegian zebilen auzoko bat, baina gainerako denak baserriko lanetan. Denetik zuten baserrian. Oiloak eta untxiak ere bazituzten. Zer ematen zieten jaten. Orduko arrautzak eta esnea.

12. Ganadu lanak

- **Erref:** DON-018/018
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:22:00. **Bukatu:** 00:22:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ganadu lanak. Azpiak egiteko hondarra eta lastoa; Hernaniko papeleratik ekartzen zuten lastoa. Egunero garbitzen zuten.

13. Hernanira feriara landare bila

- **Erref:** DON-018/020
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:23:36. **Bukatu:** 00:25:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Hernanira joaten ostegunetako landareak eroatera. Ibarako landarezaleak. Denetik ekartzen zuten. Porrua eta azenarioa. Fermin Calbeton kaletik ekartzen zuten azenario hazia, Jose Mari Elozegi.

14. Donostiatik olio, arropa...

- **Erref:** DON-018/021
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:25:43. **Bukatu:** 00:27:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Donostitik beharrezkoa ekartzen zuten: olio, azukrea... Ogia ere ekartzen zuten, gerraostean marmitan sartuta. Ogia txarra zen orduan. Arropa ere Paret Zaharrean erosten zuten, Gorriti taberna ondoko dendan. Nola janzten ziren. Oinetakoak.

15. Irubidera dantzara; neska laguntzea

- **Erref:** DON-018/023
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:27:59. **Bukatu:** 00:30:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Irubidera joaten ziren dantzara, Usurbil sarrerara. Benantzio Azkarate zen soinu jotzailea, Añorgakoa. Neska laguntzea. Bi ahizpari etxera lagundu, eta bueltan galdu egin ziren laguna eta bera.

16. Estropadetako apustuak

- **Erref:** DON-018/024
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:30:17. **Bukatu:** 00:31:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:

Estropadetan Donostiara joaten ziren. Aita oso zalea zen, eta dirua jokatzeko zuen sanjuandarren alde.

17. San Sebastian egunean, lanean

- **Erref:** DON-018/025
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:31:06. **Bukatu:** 00:32:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

San Sebastian egunean lehen ez zuten danborrik jotzen Aieten. Casa Micolasara joaten zen lanera egun horretan, lan asko izaten zutelako.

18. Soldaduskara Oiartzunera, bizikletan

- **Erref:** DON-018/027
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:32:42. **Bukatu:** 00:34:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Euskara » Euskararen egoera
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Aieten jende gutxi bizi zen, eta dena euskaraz egiten zuten. Soldadu joan zenean erdararik ez zekien. Oiartzunen egin zuen soldaduska. Bizikletan joaten zen. Auto gutxi zeuden, Gipuzkoa osoan 13.000. Antiguara ere bizikletan joaten zen pentsua ordaintzera.

19. Aieteko lehengo tabernak

- **Erref:** DON-018/028
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:34:36. **Bukatu:** 00:36:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Azkenportura joaten zen, eta musean aritzen zen lagunekin. Ardoa edaten zuten, garagardoa eta puroa. Jatekoa ere jartzen zuten. Mamistegi geroztik eginda da.

20. Munto sagardotegia

- **Erref:** DON-018/029
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:36:20. **Bukatu:** 00:37:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Munto zen sagardotegi ezagunena Aieten. Sagardo asko eta ona egiten zuten. Eguerdian eta iluntzean joaten ziren, ogitartekoa etxetik eramanda. Txarrotik edaten zuten. Behin nola mozkortu zen kontatzen du.

21. Munto sagardotegia II

- **Erref:** DON-018/030
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:37:42. **Bukatu:** 00:38:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

Munton bertsolariak ere izaten ziren. Manuel Matxain tokalaria bertakoa zen. Sebastian Salaberriarekin egiten zuen bertsotan. Tokalaria ona zen Matxain. Bolatokia ere bazen.

22. Bolatokia egin zuten aitak eta biek

- **Erref:** DON-018/031
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:38:38. **Bukatu:** 00:40:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

Bolatokia egin zuten aitak eta biek, Erramunenen. Sagar egurrarekin egina zen bola eta "brilak". Libre zen bolatokian jokatzeko. Pezeta apostua. Txapelketetan ere aritu ziren, taldeka, beste herri batzuetan.

23. Matxain tokalaria

- **Erref:** DON-018/032
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:40:26. **Bukatu:** 00:41:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

Tokan banaka jokatzen zen. Manuel Matxain zen horretan onena. Usategieta oiartzuarrarekin batera Japoniara eraman zuten, hemengo ohiturak erakustera, eta telebistan agertu zen.

24. Ezkonbidaian Bilbora

- **Erref:** DON-018/033
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:41:16. **Bukatu:** 00:42:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Orduan ez zen ohikoa bidaiatzea. Bera Bilbora joan da urrutien, ezkontza-bidaian. Trenean joan ziren. Apaizak esan zien nora joan zitezkeen. Elizara asko joaten ziren. Aieteko elizara kanpaiak jotzera joaten ziren anaia eta biak. Zazpietako mezetara, ikuiluko lanak eginda.

25. Nagusiei errespetu handia, gehiegizkoa

- **Erref:** DON-018/036
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:43:54. **Bukatu:** 00:45:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

Adinekoei "berorika" hitz egiten zieten; etxekoei ez, baina kanpokoei bai. Umeei jotzea ohikoa zen lehen; orain, berriz, ikutuz gero kartzelara igual. Gurasoek lehen ez zuten umeekin jolasteko denborarik.

26. Etxean kanilako urik ez hasieran

- **Erref:** DON-018/037
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:45:00. **Bukatu:** 00:46:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Etxian kanilako ura noiz jarri zuten. Udaleko asketara joaten ziren aurretik, ur bila. Barrikan hartzen zuten. Putzua zuten animalientzat; igelak izaten ziren putzuan. Kilkerrak harrapatzen ibiltzen ziren, baina igelak ez.

27. Perratokira joaten zen

- **Erref:** DON-018/039
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:46:57. **Bukatu:** 00:48:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Migel Soroa. Antiguako bidean, trenbidea pasatuta. Aldiko behi bat eramaten zuen. Uztarrikoak eramaten zituzten batez ere.

28. Herri kirolak eta ehiza gustuko

- **Erref:** DON-018/040
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:48:57. **Bukatu:** 00:51:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Baserrirako afizioa izan du. Herri kirolak ikustera joaten zen Astigarragara, Tolosara, Usurbilera... Urrutien Palentziara joan da, ehizara. Bere lagun bat barrika baten sartzen zen, eta handik tiroka jardun. Txorien izenak aipatzen ditu. Eskopetarekin ibiltzen zen.

29. Sagardoa egiteko prozesua

- **Erref:** DON-018/041
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:51:24. **Bukatu:** 00:55:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Sagardoa egiten zuten etxean. "Kiskilla" eta sarea erabiltzen zuten sagarrak batzeko, eta sagar zakuak gurdian eramaten zituzten. Sagarra eskuzko makinan txikitzen zuten. Etxeko sagar motak aipatzen ditu. Patsa ganaduarentzat. Hiru bat hilabete behar zuen kupelean, irakiteko. Auzoko baten anekdota, sagardoari ur asko bota ziona.

30. Inguruko baserriak; Gurepakeara ezkondu zen

- **Erref:** DON-018/043
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:55:27. **Bukatu:** 00:57:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Inguruko baserrietakoak ziren bere lagunak. Baserrien izenak aipatzen ditu. Gurepakean bizi izan zen bera, Mamistegi parean; haraxe ezkondu zen. Jostuna zen emaztea. Grosen ibili zen josten urte askoan.

31. Arrantzaleak kainabera bila

- **Erref:** DON-018/045
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:57:56. **Bukatu:** 00:59:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Arrantzaleak udazkenean joaten ziren beraien baserrira, arrantzarako kainabera bila; trukean bisigua ematen zieten. Beraiek baserritik atera zuten bizimodua, baina gaur egun ezinezkoa dela dio.

32. Behiak jezteko lanak

- **Erref:** DON-018/047
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:00:27. **Bukatu:** 01:02:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Behiak beti ikuiluan izaten zituzten, kanpoan ez. Behiak jezten ibiltzen zen, eskuz; azkenaldian makinarekin. Zinkezko baldeetan batzen zuen esnea, eta gero sarean iragazi, eta marmitara. Azkenaldian tankera.

33. Sorginen kontuak

- **Erref:** DON-018/049
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:02:21. **Bukatu:** 01:03:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Sorginen kontuak. Tolosara azokan idia erosi zuen auzoko batek; berak oinez eraman zion Aieteraino, sei orduko bidea eginda. Bidean sorgina atera zitzaiola esan zion, eta hark sinestu. Auzoko gazte bat tunika batekin ibiltzen zen, sorginarena egiten, eta harrapatu egin zuten.

34. Bertso paperak

- **Erref:** DON-018/051
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 01:04:34. **Bukatu:** 01:05:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertso paperak saltzen zituen gizon batek, baserriz baserri. Bertsolaria zen, baina pobrea. Baserrietan jatekoa bai, baina diru gutxi. Aieten gutxi ziren dirua zutenak (izenak esaten ditu).

35. Aieteko jauregian guardia egiten

- **Erref:** DON-018/052
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 01:05:29. **Bukatu:** 01:06:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:

Pakea baserriaren historia: 30.000 duron saldu zuten, lursail eta guzti. 60.000 durotan Aieteko jauregia. Soldaduska garaian Aieteko jauregian guardia egitea ere egokitu zitzaion, Franco hara joaten zenean. Behin lo hartu zuen.

36. Aiete izugarri aldatu da

- **Erref:** DON-018/054
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:07:48. **Bukatu:** 01:09:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Aiete Goiko galtzada zen, eta dena baserriak ziren. Polita zen oso. Tratua egiten zen asko. Orain ez dakite ondoan zein bizi den ere. Lehengo zaharrak bakarrik ezagutzen ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2024-04-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com